

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Epea irekitzea 2019ko udal zergak eta tasak kobratzeko

Begoña Ganzabal Zurbituk, Urkabustaizko (Araba) udalerriko alkatea naizen honek, hau jakinarazten dut:

2019ko uztailaren 16tik irailaren 16ra arteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2019ko udal zerga eta tasa hauek:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren tasa.

Auto-taxi lizentzia.

Ordaintzeko epea:

Borondatezko epea: 2019ko uztailaren 16tik irailaren 16ra.

Premiamendu aldia: epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan eta Dirubilketarako Arautegiak. Kobratu beharrekoari dagokion errenergua gehituko zaio (ehuneko 10 edo ehuneko 20).

Ordaintzeko tokia eta modua:

Ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebanean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean udalak Kutxabanken edo Banco Popularren irekita dituen kontuetan ordaindu dezakete borondatezko epean.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak, Urkabustaizko Udalean izapidetu behar dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Izarra, 2019ko ekainaren 21a

Alkatea

Begoña Ganzabal Zurbitu